


ikusbideak

№5 • JULIO 2009 EKIALDIA



Caritas
Bizkaia

Mujeres víctimas de maltrato doméstico

Guía para comprender. Guía para intervenir

Etxean tratu txarrak jasandako emakumeak

Ulertzeko gida. Esku hartzeko gida

1. argitalpena: 2009ko ekaina
Argitaratzailea: Caritas Bizkaia Argitalpenak
Erribera, 8 - behea. 48005 - Bilbo
Diseinu eta maketazioa: ekai
Itzulpena: Luis M^a Larruzea Murga

1^a edición: junio 2009
Edita: Cáritas Bizkaia Publicaciones
Ribera, 8 - bajo - 48005 Bilbao
Diseño y maquetación: ekai
Traducción: Luis M^a Larruzea Murga

Laguntzailea: Colabora:

bbk

- 0.** Presentación
Aurkezpena
- 1.** Nuevas realidades, nuevas ideas
Errealitate berriak, ideia berriak
- 2.** Maltrato doméstico
Etxeko tratu txarrak
- 3.** El maltrato doméstico y los problemas de pareja
son realidades distintas
Etxeko tratu txarrak eta bikote-arazoak errealitate
ezberdinak dira
- 4.** El ciclo de violencia
Indarkeriaren zikloa
- 5.** La intervención desde Cáritas
Caritasetik esku hartzea
- 6.** La intervención desde Cáritas: objetivos
Caritasetik esku hartzea: helburuak
- 7.** Prevención del desgaste
Desgastearen prebentzioa



Aurkezpena Presentación

Dokumentu hau gida bat da Caritaseko teknikariei eta boluntarioei zuzendua, etxeko tratu txarrei buruz.

Gure Misioa gizarte-eskubideen eta justiziaren alde lan egitea da eta, eraldaketaren bidez, partaidetzako gizarte abegikor baterantz urratsak ematea; horrek baztertuak eta sufritzen ari direnak atenditzea eskatzen digu, normalean iristen ez den egoeretara iristea, eta ezkutuko errealitateak azaleratzen laguntzea.

Errealitate horietako bat emakumeen kontrako indarkeria da: mendeetan zehar ezkutatuta eta lausotuta egon da, emakumezkoen biztanleria menperatzea eta kontrolatzea helburu izan duten jokabide normalizatuen eraginez. Indarkeria hori duela hamarkada batzuk hasi gara den moduan agerrarazten: Giza-Eskubideen urraketa. Hala denez, konpromisodun gizarte-sektore guztiok errotoz ezabatzen lagundu behar dugu.

Guk osatzen dugun gizarte-baliabideak bere ibilbidean frogatu egin du biztanleriak ahaztutako edo estigmatizatutako pertsonetako konpromisoa eta, neurri handi batean, gure ekarpen honek lagundu egin du pertsona hauei buruzko ikuskera aldatzen. Bai erakundeak bai biztanleriaren zati handi bat arduratuta daude genero-indarkeriaren inguruko

El presente documento es una guía para la actuación del personal técnico y voluntariado de Cáritas en materia de maltrato doméstico.

Nuestra Misión es trabajar en favor de los derechos sociales y la justicia, y por la transformación hacia una sociedad acogedora y participativa, lo que significa atender a las personas excluidas y sufrientes, llegar adonde no se llega así como contribuir a visibilizar realidades ocultas.

La violencia contra las mujeres es una de esas realidades. Oculta y deformada por siglos de normalización de conductas que tienen como objetivo el sometimiento y control de la población femenina. Violencia que hace apenas unas décadas se empieza a abordar como lo que es: una violación de los Derechos Humanos. Como tal, requiere que todos los sectores sociales comprometidos contribuyan a su erradicación.

Somos un recurso social cuya trayectoria demuestra su compromiso con aquellas personas olvidadas o estigmatizadas por la población y en buena medida, este apoyo ha contribuido a que se modifique la visión que se tiene sobre ellas. Si bien la violencia de género es una problemática que preocupa al

problematikaz, baina emakume-multzo batzuek, beren historiagatik eta tratu txarrek ulertzeko moduagatik, zaila dute gaur eguneko politika eta baliabideetara iristea.

Emakume-sektore horietako batzuek gure zerbitzuetara jotzen dute, gure elkartera datoz, harrera egingo eta entzungo zaien esparru baten bila. Orain arte, bete egin da zeregin hau, edozein programatik esku hartzeko metodologiaren parte baita. Hala ere, urrats berriak emateko garaia da: apurtu egin behar da etxeko tratu txarrek pribatuan aipa daitekeen bizipen barru-barrukoa delako ideia. Emakumeei ulertarazi egin behar zaie ezabatu egin behar dutela harreman hauetan lotuta dauzkan erru-sentimendua, sentimendu horri zilegitasuna kendu behar diotela; gure helburua izan behar da beraien zauriak sendatzea, beraien gaitasunak indartzea, eta IZATEKO, EGITEKO eta DESIRATZEKO aukerak zabaltzea.

Gida honen oinarria "Berdintasunaren aldeko kodernoa" argitalpena (2008) izan da. Gainera, gida honek Caritaseko indarkeriaren tratamenduaz arduratu den taldearen ekarpenak barneratu ditu, baita prestakuntza-tailerretan sortutakoak ere. Bereziki eskertu nahi dugu, Ana Txurrukaren eta Norma Vazquezen laguntza lan honetan. Gida honek lanabes erabilgarria izan nahi du: metatutako esperientzia jasotzen du, eta problematika honen inguruko ikuspegia eskaintzen du, baita jarduerajarraibideak ere, Caritaseko erabiltzaileei atentzio eraginkorra eta kalitatezkoa ematea ahalbidetuko dutenak.

conjunto de las instituciones y a buena parte de la población, hay sectores de mujeres cuya historia y percepción del maltrato hace difícil que accedan a las políticas y recursos existentes.

Algunas de esos sectores son usuarias de nuestros servicios, que recurren a este organismo en busca de un espacio que las acoga y las escuche. Hasta ahora, esta tarea se ha cumplido porque forma parte de la metodología de intervención desde cualquier programa. Sin embargo, es momento de dar nuevos pasos y romper la idea de que el maltrato doméstico es una vivencia muy íntima que sólo se puede hablar en privado, devolver a las mujeres una interpretación de su vivencia que no legitime la culpa que las mantiene en estas relaciones, que tenga como objetivo sanar sus heridas, fortalecer sus capacidades y ampliar sus posibilidades de SER, HACER y DESEAR.

La elaboración de esta Guía se ha basado en la publicación "Cuaderno por la Igualdad" (Abril, 2008) y ha integrado los aportes del equipo que se ha ocupado del tratamiento del tema de la violencia en Cáritas, así como las realizadas en los talleres de formación. Queremos agradecer especialmente la colaboración de Ana Txurruka y Norma Vázquez en este trabajo. Su objetivo final es ser una herramienta útil que recoja la experiencia acumulada, a la vez que aporta una visión de la problemática y unas pautas para la actuación que permitan ofrecer a las usuarias de Cáritas una atención efectiva y de calidad.

1

Errelitate berriak, ideia berriak Nuevas realidades, nuevas ideas

1.1- GENERO-INDARKERIA

“Genero-indarkeriaren biktima guztiak batzen dituen ezaugarri bakarra emakumeak izatea da.”

NBEko Batzar Orokorraren 1993ko abenduaren 20ko Ebazpenak 1. artikuluan dioenez, “sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan”.



1.1- VIOLENCIA DE GÉNERO

“Lo único que tienen en común todas las víctimas de violencia de género es ser mujeres”.

La resolución de la Asamblea General de la ONU del 20 de Diciembre de 1993, define en su Artículo 1 la violencia contra la mujer como “todo acto de violencia basado en la pertenencia al sexo femenino, que puede tener como resultado un daño o sufrimiento físico, sexual o psicológico para la mujer, así como las amenazas de tales actos, la coacción o la privación arbitraria de libertad, tanto si se produce en la vida pública como en la privada”.

En su Artículo 2 señala que “se entenderá que la violencia contra la mujer abarca los siguientes actos, aunque sin limitarse a ellos:

a) La violencia física, sexual y sicológica que se produzca en la familia, incluidos los malos tratos, el abuso sexual de las niñas en el hogar, la violencia relacionada con la dote, la violación por el marido, la mutilación genital femenina y otras prácticas tradicionales nocivas para la mujer, los actos de violencia perpetrados por otros miembros de la familia y la violencia relacionada con la explotación;

2. artikuluan adierazten da “emakumearen aurkako indarkeriak ondoko hauek barne hartzen dituela, baina ez horiek bakarrik:

a) Familian gertatzen den indarkeria: indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, tratu txarrak barne, neskatxoaren abusu sexuala, ezkonsariari lotutako indarkeria, senarraren bortxaketa, emakumearen mutilazio genitala eta emakumearentzat kaltegarriak diren beste praktika tradizional batzuk, familiako beste kide batzuek egindako indarkeria-ekintzak, eta esplotazioari lotutako indarkeria;

b) Komunitate orokorrean gertatzen den indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, eta hor sartzen dira bortxaketa, abusu sexualak, sexu-jazarpena eta sexu-beldurraraztea lanean, heziketa-erakundeetan edo bestelakoetan, emakumeen trafikoa eta prostituzio behartua;

c) Estatuak egindako edo onartutako indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, nonahi gertatzen dela”.

Ikus daitekeenez, definizio orokorrak barne hartzen ditu bai eremu pribatu eta publikoetako jarduerak, bai Estatuaren ez-egitez eratorriak. Indarkeriaren eremua hain zabala denez, argi agertzen zaigu ezabatu nahi dugun problematikak bikote-harremanen esparrua gaintitzen duela, eta emakumezkoen bizitza arriskuan dagoela arlo guztietan.

Hala ere, Deklarazioan aitortu egiten da emakumezkoen kontrako eraso gehienak familia barruan izaten direla, eta emakumezkoarekin afektu-loturaren bat duen gizonezko bati dagokiola erasoaren erantzukizuna. Hau dela-eta,



b) La violencia física, sexual y sicológica perpetrada dentro de la comunidad en general, inclusive la violación, el abuso sexual, el acoso y la intimidación sexuales en el trabajo, en instituciones educacionales y en otros lugares, la trata de mujeres y la prostitución forzada;


c) La violencia física, sexual y sicológica perpetrada o tolerada por el Estado, dondequiera que ocurra”.

Como se puede observar, la definición general incluye las actuaciones dentro de los ámbitos privado y público así como la que se ejerce por omisión de los poderes públicos. Esta amplia manera de analizar la violencia, nos permite entender que la problemática a eliminar excede los ámbitos de las relaciones de pareja y es un riesgo para la vida de las mujeres en todos los ámbitos.

Sin embargo, también se reconoce en la Declaración que la mayoría de las agresiones contra las mujeres se dan en el seno de la familia, siendo responsable de ella un hombre con el que la mujer tiene algún tipo de vínculo afectivo. Esto

esperientzia are mingarriagoa da, zeren eta tratu txarrak ematen dituen hori, aldi berean, maitatzen den norbait baita, errespetatu egiten dena, emakumearen konfiantza eduki duena, eta berarekin bizitzako une garrantzitsuak partekatatu dituena.

hace que la experiencia sea aún más dolorosa ya que quien maltrata es al mismo tiempo alguien a quien se ama, se respeta, en quien se ha confiado y con quien se han compartido momentos importantes de la vida.



2.

Etxeko tratu txarrak Maltrato doméstico

Emakumeen aurkako indarkeria-motarik ohikoena bere bikotekideak intimitatean egiten diona da, eta batzuetan heriotza eragiten dio. Bikote heterosexual baten barruko harremanetan ematen den ezberdintasuna, mugimendu feministek eta emakumeen bestelako elkarteek duela hamarkada gutxi batzuk azalera-tutako egitate soziala da. Botere-desoreka dagoen edozein harremanetan, indarkeria erabil daiteke, kontrol-modu bezala.

Gure gizartean, ideia ezberdinak daude emakumeek eta gizonen izan beharko luketen jokabideari buruz, eta ideia hauek kontraesanetan daude elkarren artean, zeren eta batzuk tradizioari lotuta baitaude, eta beste batzuk pentsaera modernoagoen ondoriozkoak baitira. Ideia tradizionalak indar fisikoa eta nagusitasun moral eta soziala gizonekin lotzen dituzte eta, aldi berean, gizonen privilegioetatik hartzen direnez, berauek erabiltzeko aukera ematen diete, beren menpean daudenak (emaztea, adibidez) menperatzeko. Bestetik, sozializazio femeninoaren ikuspuntutik, emakumeen erabakitzeko ahalmena bikotekideek ezarritako bidetik jarraitzearen parekoa da, eta emakumeen arduratzat jotzen da inguruko pertsonen zainketa emozionala, beraien beharrak eta desirak baztertuta edo ahaztuta.

Una de las formas más frecuentes de violencia contra las mujeres es la que ejerce su pareja en la intimidad, que a veces culmina en su muerte. La desigualdad en las relaciones dentro de una pareja heterosexual es un hecho social cuestionado hace apenas unas décadas por los movimientos feministas y de mujeres. Cualquier relación en donde hay un desequilibrio de poder entraña la posibilidad de utilizar la violencia como forma de control.

En nuestra sociedad conviven varias ideas sobre cómo deben comportarse las mujeres y los hombres, ideas que se contradicen ya que algunas son producto de la tradición y, otras de corrientes de pensamiento más modernas. Las ideas tradicionales vinculan la fuerza física y la superioridad moral y social a los hombres, al tiempo que le otorga la posibilidad de usarla como parte de sus privilegios masculinos para doblegar las voluntades de quienes están bajo su potestad (su mujer, por ejemplo). La socialización femenina, por su parte, subordina la capacidad de decisión de las mujeres a seguir el camino marcado por sus parejas así como a hacerse cargo en exclusiva del cuidado emocional de las personas que la rodean, quedando relegadas e incluso olvidadas sus necesidades y deseos.

Bikote batean, emakumeen jokabidea kontrolatzeko, gizonezkoek modu ezberdinak erabil ditzakete:

- Indarkeria fisikoa
- Indarkeria psikologikoa
- Indarkeria sexuala
- Indarkeria ekonomikoa

Indarkeria-era horietatik bakarra ager daiteke, edo batzuk batera. Hala ere, indarkeria psikologikoa beti egoten da, zeren eta eraso fisiko eta sexual guztiek edo autonomia ekonomikoa galarazten duten kontrol-mota guztiek azterna sakonak uzten baitituzte emakumeen oreka emozionalean eta osasun mentalean.

Horrexegatik, indarkeria psikologikoa maltzurrena eta batzuetan antzematen zailena da: emakumeek erasotzailearen "arrazoiak" sinesten dituzte eta, azkenean, beren burua jotzen dute harremanen funtzionamendu txarraren erantzulez.

Las formas de control masculino sobre la conducta de las mujeres en una pareja pueden expresarse de distintas maneras:

- Violencia física
- Violencia psicológica
- Violencia sexual
- Violencia económica

Estas formas se pueden expresar de manera aislada o conjunta. La violencia psicológica, sin embargo está presente siempre ya que toda agresión física y sexual o todo control que impida la autonomía económica, deja profundas huellas en el equilibrio emocional y la salud mental de las mujeres.

Precisamente por eso, la violencia psicológica es la más insidiosa de todas y la que a veces es más difícil de reconocer, creen en las "justificaciones" del agresor y acaban creyendo que son ellas las responsables de que la relación no funcione bien.



INDARKERIA FISIKOA

Bultzadak dira, belarrondokoak, ileetik tiratzea, ostikoak, zimikoak, jipoiak... Askotan ezkutatu egiten direnak.

Galde diezaiogun geure buruari:

- Emakumeak benetan hain sarri erortzen dira?
- Eguzkirik ez dagoenean, betaurreko ilunik eraman behar da?
- Zer ezkututzen du buruko min etengabeak?

Emakume batek ere ez du zigor fisikorik merezi

INDARKERIA PSIKOLOGIKOA

Irainak dira, mehatxuak, laidoak, gorputzari edo familiari buruzko isekak, denbora kontrolatzea, edo janzkera, edo jarduerak, edo lagunak... Askotan maitasun-mozorroa hartzen dutenak.

Galde diezaiogun geure buruari:

- Egia da benetan maite duenak negar eragiten duela?
- Dena onartu behar da maitasunaren izenean?
- Emakume helduek besteen kontrola behar dute?

Maitasuna inoiz ez da kontrola

INDARKERIA SEXUALA

Indarkeriazko jokabideak dira, mota fisiko edo psikologikoa, emakumeak nahi ez dituzten sexu-jarduerak egitera bultzatzen dutenak. Honetaz, lotsagatik, gutxitan hitz egiten da.

Galde diezaiogun geure buruari:

- Zergatik ez da errespetatzen emakumeen "Ez dut nahi!"?

EZETZ beti da EZETZ!

INDARKERIA EKONOMIKOA

Honelako jokabideak dira: gastuak kontrolatzen dira, ez da informaziorik ematen diru-sarrerei buruz, kartila ezkututzen da... Eta, hau gutxitan hartzen da tratu txartzat.

Galde diezaiogun geure buruari:

- Emakumeek zergatik ezin dute erabaki familiaren baliabideez?
- Emakumeek diru-laguntza eskatzen badute, dirua zergatik jasotzen dute gizonek?
- Zergatik ez zaio baliorik ematen emakumeen etxeko lanari?

Eman diezaiogun bere balioa emakumeen ekarpen ekonomikori

VIOLENCIA FÍSICA

Son empujones, bofetadas, tirones de pelo, patadas, pellizcos, palizas... Que muchas veces se ocultan.

Preguntémosnos:

- ¿Realmente las mujeres se caen con tanta frecuencia?
- ¿Son necesarias las gafas oscuras cuando no hay sol?
- ¿Qué esconde el dolor de cabeza permanente?

Ninguna mujer merece ser castigada físicamente

VIOLENCIA PSICOLÓGICA

Son insultos, amenazas, humillaciones, burlas sobre el cuerpo, la familia, control sobre el tiempo, la forma de vestir, las actividades, las amistades... Que muchas veces se disfrazan de amor.

Preguntémosnos:

- ¿Es verdad que quien bien ama hace llorar?
- ¿Se debe aceptar todo por amor?
- ¿Las mujeres adultas necesitan que las controlen?

El amor nunca es control

VIOLENCIA SEXUAL

Son conductas violentas de tipo físico o psicológico que presionan a las mujeres para realizar actos sexuales no deseados. De los que pocas veces se habla por pudor.

Preguntémosnos:

- ¿Por qué no se respeta el "¡No quiero!" de las mujeres?

Un No siempre es ¡NO!

ECONÓMICA

Son conductas de control sobre los gastos, la falta de información sobre los ingresos, esconder la cartilla... Y pocas veces se considera eso un tipo de maltrato.

Preguntémosnos:

- ¿Por qué las mujeres no pueden decidir sobre los recursos familiares?
- ¿Por qué si ellas piden ayuda económica, ellos recogen el dinero?
- ¿Por qué no se valora el trabajo que ella hace en casa?

Hagamos valer el aporte económico de las mujeres

3.

Etxeko tratu txarrak eta bikote-arazoak errealitate ezberdinak dira

El maltrato doméstico y los problemas de pareja son realidades distintas

"Bikote-harremana biren kontua da. Indarkeriaren ardura eragiten duenarena da".

Bikotearen harremanak indarkeriatik bereizten dituen marra mehea da, baina argi identifika daiteke hiru adierazleren bidez:

- Beldurra
- Hitzza galtzea
- Erru-sentimendu handiegia

Bikotearen arazoak dituen emakume batek beldurra izan ahal dio harremanak amaitzeari, horrek ekarriko dion minari, etorriko zaion bakardadeari, seme-alabak hazi beharri, familiari kontatu beharri, bizirauteko egin beharrekoari, etab. Tratu txarrak jasandako emakume batek baditu beldur horiek berak, baina, gainera, beldur dio bikotekideak beraren jokabide batzuei eman ahal dien erantzunari, bikotekideak emakumearen iritzi edo sentimendu baten aurrean edo beste batekin dituen harremanen aurrean hartu ahal duen jarrerari. Ez da bakarrik berari gertatu ahal zaionaren beldur izatea; beldur dio, batez ere, gizonaren jokabideari.

Emakume batek bikote-arazoak dituenean, hurbileko pertsonekin, senideekin, lagunekin hitz egin dezake, arazoak bikote guztiek dituzte eta, eragileak ezberdinak izan arren. Tratu txarrak jasandako

"La relación de pareja es un asunto de dos. La violencia es responsabilidad de quien la ejerce".

La línea que separa los problemas de pareja de la violencia es sutil pero claramente identificable a través de tres indicadores:

- Miedo
- Pérdida de la palabra
- Exceso de culpa

Una mujer que tiene problemas de pareja puede tener miedo a que ésta se termine, al dolor que la pérdida le puede suponer, a la soledad que puede enfrentar, a cómo enfrentar la crianza de hijas e hijos si los hay, cómo contarle a la familia, cómo arreglar su sobrevivencia, etc. Una mujer maltratada tiene esos mismos miedos pero además tiene miedo a la respuesta de su pareja ante alguna de sus conductas, la expresión de una opinión o sentimiento o la relación que tenga con una persona diferente a él. No sólo tiene miedo a lo que le pase a ella, sobre todo, tiene miedo al comportamiento de él.

Cuando una mujer tiene problemas de pareja tiene capacidad para comentarlos con personas cercanas, familiares, amigas, porque toda pareja normal tiene problemas aunque las causas que los generen sean diferentes. Una mujer maltratada tiende a

emakume batek bere bizipena isiltzeko joera du, esperientzia oso asaldatzailea delako eta gaitasun eskasagoa duelako horretaz hausnartzeko, berari ere sinesten zaila egiten zaio eta. Beraz, gehienetan, zailtasun handiak ditu bizipen horretaz hitz egiteko eta, horregatik, isiltzeko joera izaten du, edo ukatzeko, itxuraldatzeko, larritasuna gutxitzeko.

Bikote guztiek dauzkate beren gatazkak eztabaidatzeko eta konpontzeko bideak. Batzuk besteak baino eraginkorragoak dira. Eta, nahiz eta eztabaida hauetan bikotekide bakoitza saiaturiko den arazoak besteari leporatzen, arazo hauek konpontzeak esan nahi du biek hartzen dutela beren gain dagokien zatia, eta birtartekoak adosten dituztela, arazoak ez larriagotzeko.

Tratu txarretan, emakumeen joera izaten da bikotekideen arteko eztabaida guztien ondorioak beren gain hartzea, eta oso errudun sentitzen dira. Ardurak jokabide okerrari aurre egitea ahalbidetzen du, baina erru-sentimendua zama morala da, bizi duena "pertsona gaiztoa" bihurtzen duena.

Tratu txarren dinamikak berekin dakar, gainera, indarkeriaren eragileak bere ekintzen errua bikotekideari leporatzen diola. Indarkeria-eragilearen jokabidea emakumearen "probokazioei" egindako erantzun bezala agertzen da, eta emakumea onbidertzeko erremedio moduan ("bide ona" berari beti arrazoia ematea da). Baina, dinamika horretan, arazo handi bat dago: emakumeak, eginahal guztiak egin arren, ezingo du inoiz gizona asebete. Honen arrazoia da emakumearen eskuetan ez dagoela gizona bere onera ekartzeko boterea; gizona eraso

silenciar su vivencia porque la experiencia es muy perturbadora y tiene menor capacidad de elaborarla internamente, ya que le parece poco creíble a ella misma. Por tanto, la mayoría de las veces tiene serias dificultades para hablar sobre ella y por eso opta por el silencio o por negarla, deformarla, hacerla menos grave.

Toda pareja tiene mecanismos de discusión y solución de sus conflictos. Algunos son más eficientes que otros. Y aunque en esas discusiones cada miembro de la pareja intente responsabilizar al otro de los problemas, la resolución de los mismos implica que ambos reconozcan y asuman su parte y acuerden medios para evitar que los problemas se hagan más graves.



egitera eraman duten frustrazioa, haserre, atsekabea gizonaren arazoak dira, eta lotura dute gizonak sentimenduak ulertzeko eta adierazteko duen moduarekin.

Hala ere, gizonari eta emakumei asko kostatzen zaie hau ulertzea, eta emakumeek jarraitzen dute erru handiegia beren gain hartzen, gizonen zailtasunak ere barneratzen dituztelako.

Bestetik, emakumeak abusuari atzemateko gai ez izatea tratu txarren beste sintoma bat da. Emakumeek, bikotekideen jokabideak etengabe zurrizten dituztenean edo errua beren buruari leporatzen diotenean, adierazten dute nahastu-

En el maltrato, las mujeres tienden a asumir todas las consecuencias de las discusiones en la pareja y se sienten muy culpables. A diferencia de la responsabilidad que permite enfrentar una conducta equivocada, la culpa es una carga moral que convierte a quien la vive en una "mala persona".

La dinámica del maltrato incluye también que el responsable de la violencia culpa a su pareja de lo que le hace. Su conducta aparece como una respuesta a "provocaciones" de ella y como un remedio para volverla al buen camino (que para él significa darle siempre la razón). Pero en esa dinámica hay un gran problema y es que la mujer, haga lo que haga, no puede nunca complacerlo por más que lo intente. Esto se debe a que es falso que ella tenga en sus manos el poder para confortarlo; la frustración, el enfado, el disgusto que haya llevado al hombre a la agresión es problema de él y de la manera cómo enfrenta y expresa sus sentimientos.

Sin embargo, a mujeres y hombres les cuesta mucho trabajo comprender esto y las mujeres siguen asumiendo un exceso de culpa ya que cargan con las dificultades que los hombres tienen.

Por otro lado, la falta de capacidad de las mujeres para detectar el abuso de que son objeto es también un síntoma del maltrato. Las constantes justificaciones de las mujeres a las conductas de sus parejas o sus autorreproches hablan de que ellas se han confundido y están seriamente limitadas en su capacidad de decidir.

Estos tres indicadores son una brújula para no confundir los problemas de pa-

EMAKUMEENGAN AGERTZEN DIREN HIRU ADIERAZLE HAUEK ARGI BEREIZTEN DITUZTE TRATU TXARRAK BIKOTEAREN ARAZOETATIK

BELDURRA

Bikotekidearen erreakzioari.

HITZA GALTZEA

Nahasmenagatik eta bizipen hori bere barnean lantzeko zailtasunagatik.

ERRU-SENTIMENDU HANDIEGIA

Bere gain hartzen duelako berea ez den erantzukizuna, eta uste duelako bere kontrolarik kanpoko jokabideak alda ditzakeela.

TRES INDICADORES PRESENTES EN LAS MUJERES QUE DISTINGUEN EL MALTRATO DE LOS PROBLEMAS DE PAREJA

MIEDO

A la reacción de su pareja.

PERDIDA DE LA PALABRA

Por confusión y dificultad en la elaboración interna de la vivencia.

EXCESO DE CULPA

Porque carga con una responsabilidad que no es suya y cree que puede cambiar conductas que ella no controla.

ta daudela eta muga handiak dituztela erabakitze ahalmenean.

Hiru adierazle hauek iparrorratz egokia osatzen dute, bikote-arazoak tratu txarrekin nahas ez ditzagun. Bikote guztiek izaten dituzte arazoak, eta bien eginkizuna da arazo horiei aurre egitea eta konponbideak aurkitzea. Tratatu txarrak ez dira bikotearen arazo bat; tratatu txarren ardura eraso egiten duenari dagokio.

reja con el maltrato. Todas las parejas tienen problemas y es tarea de dos enfrentarlos y crear sus mecanismos para resolverlos. El maltrato no es un problema de la pareja, es responsabilidad de quien ejerce la agresión.

4

Indarkeriaren zikloa El ciclo de violencia

Azaldu dugun guztiagatik, bikotearen barruan lehen indarkeria-episodioa gertatzen denean, zaila da apurtzen. Jakina, badaude emakume batzuk, gazteen artekoak batez ere, bikote-harremanak apurtzen dituztenak indarkeria agertzen den lehenengo aldian. Hala ere, emakume helduek, Caritaseko erabiltzaile nagusiek, denbora luzea ematen dute ziklo baten barruan: indarkeria-gertakariaren atzetik, erasotzailearen damua dator, berriro ez dela gertatuko esaten dio, aldatu egingo dela... baina bera, emakumea, aldatzen baldin bada.

Azken urteotan, elementu berria hasi da agertzen ziklo honetan: emakume batzuek salatu egiten dute eraso, baina beti ezin dute bikotearekiko lotura apurtu, neurri legalak ezartzen diren abiadura berean, behintzat. Emakume askori gustatuko litzaieke salaketa disuasio-tresna izatea beren bikotekideentzat, botere handiago duen beste norbaitek egindako "oharpena". Hala ere, salaketak abian jartzen ditu emakumeek kontrolatu ezin dituzten zenbait neurri. Zaila da ondorioei aurre egitea eta, horregatik, batzuk ez dira salatzera ausartzen, eta beste batzuek, salaketa jarri eta gero, kendu nahi izaten dute.

Salaketa lanabes oso lagungarria izan daiteke urte askotan errepika daitekeen ziklo hau apurtzeko, baldin eta, gogoeta


La violencia en la pareja, por todo lo que hasta ahora se ha expuesto, es difícil de romper cuando se da el primer episodio. Por supuesto, hay algunas mujeres, sobre todo entre las más jóvenes, que rompen la relación al primer hecho violento. Sin embargo, las mujeres mayores, principal grupo de usuarias de Cáritas, pasan mucho tiempo en un ciclo de pareja en donde al hecho violento le sucede una fase de arrepentimiento del agresor con la promesa de que no volverá a suceder de que va a cambiar... siempre y cuando ella cambie.

En los últimos tiempos se puede observar un nuevo elemento en este ciclo, y es el hecho de que algunas mujeres denuncian la agresión, aunque no siempre pueden romper el vínculo con su pareja a la misma velocidad con que se aplican las medidas legales. A muchas mujeres les gustaría que la denuncia fuera una herramienta disuasoria para sus parejas, una especie de "llamada de atención" de alguien que tiene más poder. Sin embargo, la denuncia es un acto que echa a andar una serie de medidas que escapan al control de las mujeres. Las consecuencias son difíciles de enfrentar y por eso algunas no se atreven a hacerlo y otras la pretenden retirar después de interpuesta.

La denuncia puede ser una herramienta de mucha ayuda para que las muje-

eginda eta nahiko laguntza duela ikusita, salaketa jartzeko erabaki tinkoa hartu badu. Argi egon behar da emakumeak ez duela jasan beharko zirkulua apurtzea zailagoa egingo liokeen arriskurik.

res rompan con este ciclo que se puede repetir una y otra vez a lo largo de muchos años, siempre y cuando su decisión al interponerla sea firme porque la ha reflexionado y cuenta con apoyos suficientes, de manera que no corra riesgos que le hagan aún más difícil salir de este círculo.



5

Caritasetik esku hartzea: aukera berriekiko horizontea La intervención desde Cáritas: horizonte

“Tratu txarrak jasandako arima eta zauri isilak sendatzea; egin ahal dugu eta horretan saiatu behar dugu”.

Esku-hartze guztietan, gure printzipioetako bat pertsonaren promozio integrala da. Tratu txarrak jasandako emakumeen kasuan, sustapen hau aukera berriak emango dizkien horizontea sortzean islatuko da: hala, batetik, emakumeek tratu txarrek beren bizitzetan eragindako zauriak sendatu ahal dituzte; eta, bestetik, baldintza egokiak sustatuko dira talde honentzat: egiteko, izateko eta desiratzeko ahalmenak mugatuta dituzten pertsona hauek beren gaitasunak garatu ahal izan dituzaten, eta beren bizitzan erabaki garrantzitsuak hartzea ahalbidetuko dieten lanabesak erabiltzen ikas dezaten.

Aurreko elementuak hala aipatzeak ez du esan nahi batak bestearen aurretik joan behar duenik, zeren eta hasieratik bertatik bateratu behar baitira mina jasaten laguntzea eta aurrera egiteko bultzada. Hala ere, batzuetan zauria hain da handia eta zaharra, ezen denbora beharko baita sendatu ahal izateko.

5.1- TRATU TXARREK ERAGINDAKO ZAU-RIAK SENDATZEA

Lehenago esan dugunez, tratu txarrak edozein motatakoak direla ere, beti dago

“Sanar el alma maltratada, las heridas calladas; es lo que podemos y debemos intentar hacer”.

Uno de nuestros principios en toda intervención es la promoción integral de la persona. En el caso de las mujeres maltratadas, esta promoción se traduce en construir un horizonte donde, por un lado, las mujeres pueden sanar las heridas que el maltrato ha dejado en sus vidas y, por otro, propiciar las condiciones para que un colectivo y unas personas que tienen limitadas sus capacidades para hacer, ser y desear, puedan aumentar sus capacidades y adquieran el manejo de herramientas que les permitan tomar decisiones importantes para sus vidas.

Si ponemos estos elementos de nuestro horizonte no es porque uno de ellos vaya primero que el otro, desde un principio se debe combinar el apoyo en el dolor con el impulso para salir adelante. Sin embargo, hay ocasiones en que la herida es tan grande y tan vieja que necesitará tiempo para cicatrizar.

5.1- SANAR LAS HERIDAS DEL MALTRATO

Como ya hemos dicho anteriormente, sea cual la forma que haya adoptado el maltrato, siempre hay una herida psíquica profunda. Porque el golpe, el insulto, la insinuación, la humillación

zauri psikiko sakona. Kolpeak, irainak, insinuazioak, umilazioak... geuk dugun balioa erazten digutelako: geure buruarekiko maitasuna. Hau galtzen bada, ez da maitasunik geratzen beste inori emateko; erresumin sakona finkatzen da gure barnean, mundua modu deformatuan ikustarazten diguna.

Zauriak sendatzeko, ikasi egin behar da emakume baten ondoan egoten, laguntza eskatzen digunean. Jakin behar da errespetuz eta errukiz egoten (errukia bestearekin batera jasatea da eta), horrela emakumeek galdu dutena berreskura dezaten: besteenganako konfiantza eta beren buruarekiko maitasuna.

Tratu txarrak jasandako emakume batek eskatzen digunari jaramon egiten badiogu, agian honelako zerbait entzungo dugu:

- Mesedez, zure sostengua behar dut, zeren orain nahasita nago eta hor zaudela jakin behar dut.
- Lasai nazazula behar dut, nire ezbaiak onar ditzazula, eta ezintasuna jasan ahal izan dezazula, niri lagundu ezin didazunean..
- Ulertu nire haserrea. Ez zara zu, ezta lagundu nahi didaten gainerakoak ere, haserrarazten nautenak. Horren arrazoia, bizi dudan edo bizi izan dudan errealitatea da, ezin ditut umilazioak eta erru-sentimendua asimilatu. Horregatik egiten dut oihu, aldendu egiten naiz, zakar erantzuten dizut. Nire haserrea minaren estalkia da, eta arinegi kentzen badidazu ez dakit nola erantzun dudana.
- Ez saiatu nire malkoak saihesten. Gogorra gertatu ahal zaizu ni negarrez

nos despojan de lo más valioso que tenemos: el amor hacia nosotras mismas. Si ese se pierde, no queda amor para darlo a nadie más, lo que se instala es un resentimiento profundo que nos hace empezar a ver el mundo de una manera deformada.

Sanar las heridas significa aprender a estar ahí cuando una mujer nos necesita. Un saber estar lleno de respeto y la compasión (entendida como padecer con la otra persona), que permita que las mujeres recuperen lo que han perdido: la confianza en los otros y el amor por sí mismas. Si pudiéramos escuchar lo que nos pide una mujer maltratada, tal vez escucharíamos algo como esto:

- Por favor, necesito que me sostengas porque ahora estoy muy aturdida y preciso saber que estás ahí.
- Necesito que me calmes, que aceptes mis indecisiones y que puedas tolerar la impotencia cuando no puedas ayudarme.
- Entiende mi enfado. No eres tú ni los demás que intentan ayudarme quienes me enfadan. Es la realidad que vivo o he vivido, es que no puedo digerir las humillaciones, la culpa. Por eso grito, me aparto, te contesto de forma grosera. Mi enfado es una máscara que cubre el dolor, si me la quitas demasiado rápido no sabré cómo reaccionar.
- No trates de evitar mis lágrimas. Verme llorar puede ser duro para ti, pero es un modo saludable de expresar un poco de mi pena. Llorar es

ikuste, baina nire pena apur bat adierazteko modu osasungarria da. Negar egiteak on egiten dit; mesedez, jesar zaitetz nire ondoan eta utzidazu negar egiten.

- Ez alderatu nire mina beste batzuenarekin. Neure pena da, beste inori transferitu ezin zaiona. Ikusiko baninduzu ambulanzia bila datorkidanean, norbaitek jo eta odoletan bainago, seguraski ez zenidake esango "Poztu zaitetz, kolpe hilgarriak ez dizute eman eta!"
- Ez esan hau gertatzen zaidala "Jainkoak hala nahi duelako". Hori entzuteak ez nau kontsolatzen eta ni espiritualki nahastea baino ez duzu lortuko.
- Hobe da nola sentitzen naizen galdetzea, "Badakit nola sentitzen zaren" esan beharrean.
- Ez esan "Ahaztu ezazu!", "Utzi ezazu!" "Salatu ezazu!". Agian, zuk argi dituzu ideia horiek, baina ni nahasita nago, pentsatzeko denbora behar dut, eta nire negararekin eta haserrealdiekin ez dut argi ikusten, eta ez dakit nire erabakiak zuzenak izango ote diren.
- Besarka nazazu, uki nazazu, esadazu nire ondoan egon ahal zarela.
- Tratu txarrak ez dira nire bizitza osoa, barre ere eragin ahal didazu, denbora betetzeko jarduerak eskaini ahal dizkidazu, kafe bat hartzera gonbidatu, historiak kontatu. Baliteke bertan ez nagoelako itxura ematea, baina bake-une garrantzitsuak dira nire zaurietarako.
- Ulertu nire mina eta nahasmena, mesedez. Eman ahal didazun laguntzarik onena, aspalditik inork eskaintzen ez didan maitasun sendagarri hori da.

bueno para mí, por favor, trata de sentarte a mi lado y dejarme llorar.

- No compares mi dolor con otros. Mi pena es mía y es intransferible. Si me vieras cuando una ambulancia me está recogiendo porque alguien me ha pegado y sangro, seguramente no me dirías "¡Alégrate, ninguno de los golpes es mortal!"
- No me digas que lo que me pasa es porque "Dios así lo quiere". Oír eso no me consuela y sólo logra confundirme espiritualmente.
- Es mejor que me preguntes como me siento a que me digas "Sé cómo te sientes".
- No me digas "¡Olvídalo!", "¡Déjalo!" "¡Denúncialo!". Esas son ideas que tú puedes tener muy claras pero yo estoy confusa, necesito tiempo para pensar y mientras lloro o me enfado mi cabeza no se aclara y no sé si las decisiones que tome serán las correctas.
- Abrázame, tócame, dime que puedes acompañarme.
- No toda mi vida es el maltrato, también puedes hacerme reír, ofrecerme actividades que me entretengan, invitarme un café, contarme historias. Puede que yo parezca ausente, pero esos momentos son remansos importantes para mis heridas.
- Comprende mi dolor y mi confusión, por favor. La mejor ayuda que me puedes dar es ese amor reparador que hace tiempo que nadie me ofrece.



5.2- EMAKUMEEN JABEKUNTZAREN ALDE LAN EGITEA

Mina beste pertsona batzuek partekatu ahala, eramangarriago egiten da, eta bizi duena pentsatzen hasi daiteke. Esku-hartzea orduantxe zuzendu behar da emakumearen jabekuntza lortzera, bere erabakitzeko ahalmena berreskuratuz, bere bizitza berak aurrera ateratzeko gogo berpiztera, ilusio berriak izatera, eta hori guztia bikotekidearekin jarraitzeko edo ez jarraitzeko erabakia gorabehera.

Aukera berri hauek irekitzeko, honela jokatu behar dugu:

- Baldintzarik gabeko laguntza eman behar diegu emakumeei, beraiek, konfiantza hartuta, kontatu ahal izan dezaten zer gertatzen zaien, beraien zalantzak, zailtasunak, eta porrot moduan bizi dituzten saialdiak ere bai, nahi duten beste aldiz. Emakumeak gauza badira beren

5.2- TRABAJAR POR EL EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES

A medida que el dolor se acepta por otras personas, se vuelve más manejable y quien lo vive puede empezar a pensar. Es entonces cuando la intervención tiene que dirigirse hacia su empoderamiento personal, es decir, a lograr que aumente su capacidad de decisión, que recupere el deseo de tomar las riendas de su vida, que tenga nuevas ilusiones, independientemente de que decida mantener su relación de pareja o terminar con ella.

Este horizonte requiere de unas actuaciones que contemplan:

- Prestar apoyo incondicional a las mujeres otorgándoles suficiente confianza para que puedan volver a contar lo que les pasa, sus dudas, sus dificultades e incluso los intentos que viven como fracasos tantas veces como sea necesario. Si las mujeres son capaces de analizar

saialdiak aztertzeko, horrek esan nahi du arrakastatsua izan dela atenditzen dituztenek emandako konfiantza. Baldintzarik gabeko laguntza honek ez du "esan nizan" bezalako lelo moralizante-rik erabili behar, emakumeak gauza izan ez direnean pentsatutako estrategiak aurrera eramateko; esku-hartzearen bidez, lagundu egin behar zaie beren errealitatea kontuan hartu dezaten, beren baldintzak eta baliabideak, bizikalitatea hobetzeari begira eman beharreko urratsak planifikatzeko.

- Lan egin behar dugu emakumearen eta bere ingurunearen segurtasun eta osotasun pertsonalaren alde, eta bere integritatea babestu behar dugu. Eskubideak izateko, bizirik egon behar da; beraz, funtsezkoa da emakumeen segurtasuna babestea. Hau salaketa bera baino garrantzitsuagoa da. Erasotzaileen zigorgabetasunari aurre egin behar zaion arren, hau ez da lortu behar emakumeak arriskuan jarritz. Emakumeak salaketa egiten duenerako, babeserako egitura egokiak egon behar dira, emakume horrek bere bizitza edo osotasun integrala arriskuan jarri ez dezan.

- Laguntza eta informazioa eman behar diegu, behar den denborari erreparatu gabe, berak bere erabakiak hartu ditzan. Asimilazio-eritmoak ezberdinak dira, eta esku-hartzeak kontuan hartu behar du emakume bakoitzak bere denbora behar duela.

- Emakumeak BERE erabakia hartu behar du, eta errespetua zor diegu, ados egon zein ez egon. Hala ere, horrek ez du esan nahi ezin denik eztabaidatu arazoaz duen ikuspegia; alderantziz, geure eginbeharra eztabaidatzea da, kontras-

sus intentos este es un indicador de éxito ya de la confianza que ha podido encontrar en quienes la atienden. Este apoyo incondicional que no necesita de lecciones moralizantes del tipo "te lo dije" cuando las mujeres no hayan sido capaces de llevar adelante sus estrategias planeadas, en todo caso, las intervenciones tienen que ayudarla a tomar en cuenta su realidad, sus condiciones y sus recursos para planear los siguientes pasos a dar en su proceso de mejorar su calidad de vida.

